

Abiatu 2.0 gailua eskuratzeko BALDINTZAK. (19/2014 FORU ARAUA, abenduaren 23koa)

- Jarduera profesional, enpresarial, edo ekonomiko batera atxikia ez dagoen ibilgailu arin baten ohiko erabiltzailea eta jabetun den persona fisikoa izatea.
- Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotea.
- Gipuzkoako Foru Ogasunarekin zerga betebeharreran egunean egotea.
- Xede horretarako gaitutako ordainketa bitarteko baten edo bankuko kontu baten titularra izatea.
- Azpiegiturak erabiltzeko kanonaren ordainketa Bidegirekin egunean egotea eta gailu telematikoa (TAG) erabiltzeko ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzea.



DESKONTUAK GIPUZKOAKo kanonaren gainean

Joan-etorri murrizketak - 0,55€ (BEZ barne) aplikatzean datza

Murrizketa 24 orduko tartean eta ordainleku beretik jarraian egindako joan-etorriko bidaia bakoitzari, betiere, ez bada joan-etorri burutzen tartekako beste ordainlekuetik.

Programa honen barruan dauden ordainlekuak ondorengoak dira: Irun M/O, Irungo langa (Behobia), Oiartzun, Orio, Zarautz Ekialdea, Zarauzko ordainleku nagusia* (*mendebalderantz edo sistema itxirantz) eta Irun Ventas ordainlekua gehitzen da, jatorria edo helmuga Behobia duten mugimenduetan.

Deskontu progresiboa - Gutxienez hilabete horretan 6 igarotze eginez gero:

- % 25eko deskontua, lehenengo 8 igarotzei (hau barne).
- % 55eko deskontua, 9. igarotzetik 20. igarotzera (biak barne).
- % 75eko deskontua, 21. igarotzetik aurrera.

A-636 autobia: Lehenengo eta azken arkuen arteko igarobideak, noranzko berean, ez du 20 minututik gorakoa izan behar. Denbora hori gainditzen ez bada, igarobideak bidaia bakar gisa zenbatuko dira, zein tartetan igarotzen den kontuan hartu gabe.

Hileroko gastu-muga GIPUZKOAn : 35,25€ (BEZ barne)

Gipuzkoako gastu-muga deskontua, murrizketa plana eta deskontu progresiboaren ondoren aplikatzen da (aplikagarriak diren kasuetan).



DESKONTUAK BIZKAIA/ARABAKo kanonaren gainean

Hileroko gastu-muga deskontua BIZKAIA eta ARABAn: 50,93€ (BEZ barne).

Bizkaiko eta/edo Arabako kanonaren gaineko kontsumoagatik hileko gastuaren gehieneko muga, betiere **igarotzea Gipuzkoan hasi edo amaitzen bada**.

Salbuespen gisa, Ermua eta Abadiñoako ordainlekuetan, AP-8 autobidera Bizkairantz edota Bizkaitik burutzen diren sarrera-irteerak tratamendu berezia izango dute, Ermua eta Abadiñoako ordainlekuak Gipuzkoakotzat hartuko baitira, gastu-muga deskontua Bizkaiko kanon osoari aplikatuko zaiolarik.

- **Abiatu 2.0** gailua pertsonala eta besterenezina izango da.
- Baldintzen betekizuna kontratu guztian zehar bete beharko da.
- Ibilgailu, kontu korrante edo helbide aldaketarik egingo balitz, Bidegiri jakinaraztea ezinbestekoa izango da datuak eguneratu ahal izateko.



PREZIOA ETA FAKTURAZIOA

Gailuari alta ematea doakoa da. Mantentze-zerbitzuaren prezioa urteko 7 eurokoa da (BEZ barne).

Hileroko faktura Web Gunean (SARBIDEA) egongo da. Hilabete naturalean egindako igarotze edota ordainketaren fakturak, hurrengo hilaren bigarren hamabostaldian egongo dira eskuragarri.

Fakturak igorri ondoren adierazitako kontu korrontean egingo dira karguak.



ALTA-KONTRATUA

INTERNET bidez: www.bidegi.eus

ZUZENEKOA - Bidegiko Bezeroarentzako Arreta Bulegoa



Aritzeta Zerbitzugunea
GI-20 errepidea, 14,800 KP
20170 - Usurbil (Gipuzkoa)



ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera (lanegunak),
08:00etatik 20:00etara



ENTREGATZEKO EPEA

Eskaera berrietan, **abiatu 2.0** eskuratzeko betebeharreko baldintzak betetzen badira, entregatzeko epea gehienez lau astekoa da eskaera erregistratzen denetik.